



*Martinarena*



*Queremos dedicar estos versos creados en recuerdo y homenaje a nuestra abuela Martina, a todas las familias que sufrieron represión a raíz del golpe de estado de 1936. De forma especial a todas aquellas mujeres olvidadas y sin nombre que, tras asesinar o encarcelar a sus maridos y superando todas las dificultades con su arrojo y energía, sacaron adelante a sus familias.*

*Lo que los golpistas hicieron a nuestra familia, así como a miles de ciudadanas, fue un plan diseñado para asesinar y hacer desaparecer los enemigos políticos. Un genocidio.*

**G**ure amona Martinarentzat sortutako bertso hauek, 1936ko estatu kolpearen ondorengo errepresioa jasan zuten familia guztiei eskaintzen dizkiegu. Bereziki, senarra erail edo preso hartu ondoren, errepresio eta zailtasun guztien gainetik, beraien kemena eta adoreaekin, familiak aurrera atera zituzten ahaztutako eta izenik gabeko emakume guztiei.

Gure familiarekin eta herriz herri milaka herritarrekin kolpistek egin zutena, etsai politikoak erailtzeko diseinatutako estrategia bat izan zen. Genozidioa.

*Felix Goya Urbietaren eta  
Martina Ruiz de Galarretaren sendia  
2019/11/15*

*Martinarentzat*

## HOGEGARREN URTERA III (G)

The image shows a musical score for a song. It consists of ten staves of music, each with a corresponding line of lyrics underneath. The music is written in a single system with a treble clef and a common time signature (C). The lyrics are in Basque. There are various musical notations such as slurs, accents, and fingerings (e.g., '3' for triplets) above the notes. The lyrics are: Ho-gei ga-rren ur-te-ra, a-ri naiz hur-bil-tzen, e-ta ne-re oi-ne-tan, tun-ba dut i-kus-ten, ni zer-ta-ko mun-du-ra, e-to-ri-a nin-tzen, on-di-kotz ez sor-tze-a, ne-re-tzat ho-be zen.

Ho-gei ga-rren ur-te-ra  
a-ri naiz hur-bil-tzen  
e-ta ne-re oi-ne-tan  
tun-ba dut i-kus-ten  
ni zer-ta-ko mun-du-ra  
e-to-ri-a nin-tzen  
on-di-kotz ez sor-tze-a  
ne-re-tzat ho-be zen.

Doinua: *Hogegarren urtera*

\*Bertsio laburra **kantatzeko**: gorriz (1, 3, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, eta 23. bertsokak)

Bertsio laburra **entzuteko**: <https://www.youtube.com/watch?v=0fqcq-3PcmQ>



*Martinarenak*



# [ 1 ]\*

Hogeigarren mendea  
hastetikan berta,  
Iruñan sortu nintzen  
mundura zer gerta...

Ni nauzue Martina  
Ruiz de Galarreta,  
nire familiari  
iso ta arreka.

Izkutuan egin dut  
hainbat negar eta,  
gerra garaia ez da  
igaro barreka.

*Izkutuan egin dut  
hainbat negar eta,  
jakin nahi dituenak  
jar beza arreka.*



*Soy Martina Ruiz de  
Galarreta, nací en Iruña  
justo a las puertas del siglo  
XX ¡Ay, cómo he tenido  
que pelear por mi familia y  
cuánto he llorado en soledad  
por culpa de esa maldita  
guerra !Escuchad lo que os  
tengo que contar!*

## [ 2 ]

*No todo es blanco o negro  
aunque hay quien lo crea  
así. En casa no había  
qué llevarse a la boca y  
hube de servir en la casa  
de un militar apellidado  
Montaner; como veréis,  
más tarde aquella familia  
me sirvió de mucha ayuda.*

Nahiz norbaitek bestela  
pentsatu lezakeen,  
denak txuri edo beltz  
ez dira izaten.  
Ez genuen debalde  
jaten ta edaten.  
Neskame aritua  
onenak ematen,  
militar arrastoko  
familia baten,  
aitaren abizena  
Montaner zeukatzen;  
*militar arrastoko  
familia baten...*  
geroago dezente  
lagundu zidaten.



*Me enamoré de un mozo  
de Oiartzun, Felix Goia  
se llamaba. Fue el hombre  
con quien me casé en la  
iglesia de San Saturnino  
allá por 1919 y con el que  
formé familia: dos hijas  
y cuatro hijos. ¡Aunque  
con apreturas, qué felices  
vivíamos en Eulate!*

## [ 3 ]\*

Oiartzungo seme bat  
nuenez senargai,  
mila beatzirehun ta  
hemeretzián bai,  
elkar hartu genuen  
amets gozotan blai.  
San Saturnino eliza  
ezkontzako talai  
Felix Goia izan zen  
niretzako galai,  
sei seme-alaben aita:  
bi ahizpa, lau anai...  
*Felix Goia izan zen  
niretzako galai*  
Eulaten bizi ginen  
Justu, baina alai.

## [ 4 ]

Urte luzetan izan  
zirenak ahalge,  
Errepublikak poztu  
zuen hainbat talde:  
berdintasuna maite  
ez duena, alde!  
Baina zail da berdintzen  
goi eta bekalde,  
UGTn afiliatu  
izanari galde,  
aukera ez zitzaion  
atera debalde.  
*UGTn afiliatu  
izanari galde,*  
mundu justuago ta  
hobe baten alde.

*Vino la república y tanta  
gente que vivió atemorizada  
durante años se animó a  
organizarse: “Fuera los  
contrarios a la igualdad!”.  
Pero a Félix, afiliarse a  
UGT en favor de un mundo  
más justo y mejor, le costó  
muy caro.*

*Y llegó el golpe del 36: los  
fascistas con Rufino Alegría  
a la cabeza se adueñaron  
del ayuntamiento de Eulate.  
Y los nuestros a la cárcel  
como perros. Al liberarlos  
en Iruña escucharon que  
tenían dispuestos cañones,  
fusiles y balas, y que los  
demás deberíamos andar con  
cuidado.*

## [ 5 ]\*


Hogeita hamaseian  
altxamentu gala:  
Rufino Alegría  
denen buru zala,  
faxistek hartu zuten  
Eulaten udala;  
gureak kartzelara,  
txakurrak bezala,  
Iruñan askatzean,  
entzun zuten hala:  
prest zeudela kainoiak,  
fusil eta bala...  
*Iruñan askatzean  
entzun zuten hala:  
zer ta nola ibili  
pentsa genezala.*



*A su regreso al pueblo no lo encontraron más calmado, los fascistas seguían rabiosos. El y sus amigos, indefensos como estaban, fueron secuestrados a punta de fusil. Al oír las descargas y tiros, Felix huyó en la oscuridad de la noche. Y el temor se adueñó de nuestra familia.*

## [ 6 ]\*

Ezer ez zen baretu  
herrira heltzean,  
faxisten osagaiak  
baitzeuden eltzean.  
Fusilaz bahitu zuten,  
grinak erretzean,  
bera ta zenbait lagun,  
babesik ezean.  
Tiro soinua entzun  
ondoren ertzean,  
Felixek alde egin  
zien gau beltzean...  
*tiro soinua entzun  
ondoren ertzean,  
beldurra nagusitu  
zen gure etxean.*



*Durante días permaneció escondido, sin dar señales de vida. Acudió a Eufrasio, el de Larraona; le dijo “Tengo problemas”, y si podía enterarse de cómo estaban las cosas en Eulate. El le contó lo que supo: que podía regresar igual que sus amigos, que los fascistas habían tirado pero no a matar.*

## [ 7 ]

Egunetan egon zen izkutuan, isil...  
Larraonako Eufrasio nahiz ta ez zen hurbil, joan eta esan zion «-Arazotan nabil», Eulaten daturikan ote zezaken bil. Ta hark jasotakoa eman zion abil: lagunak bezalaxe bueltatzeko trankil, ta hark jasotakoa eman zion abil: tiro egin bai, baina ez zituztela hil.



*Me acuerdo bien de aquella  
noche de agosto, porque  
dormía con un ojo abierto.  
Llegó un grupo de requetés,  
faltos del mínimo respeto,  
entraron arrogantes en casa,  
y envalentonados ordenaron:  
“Aquí ya no hay sitio para  
vosotros, tenéis un día,  
uno, para marcharos de  
Navarra”.*

## [ 8 ]\*


Lo erne egitea  
badakigu zer den;  
abuztuko gau hartaz  
oroitzen naiz, zeren,  
requete koadrila bat  
errespetuz herren,  
etxean sartu ziren  
harro bezain lerdan.  
Agintzeko bazuten  
indar aina kemen:  
«-Zuentzako lekurik  
jada ez da hemen»,  
*agintzeko bazuten  
indar haina kemen:*  
«-Alde Nafarroatik  
egun bat baino lehen».



*Si todos somos personas,  
¿por qué ese odio hacia  
nosotros? Pero ellos tenían  
armas y nosotros nada más  
que la palabra. Recogimos  
lo que pudimos y salimos de  
hurtadillas, seis chiquillos,  
mi marido y yo, el burro  
y nuestro burrico Periko,  
y nos fuimos de Eulate...  
alguno para siempre.*

## [ 9 ]\*


Denak gara pertsonak,  
denak hanka biko,  
amorru hori nondik  
zuten gurekiko?  
Eurak zituzten armak,  
guk hitza ta kito;  
lau trapu hartu eta  
erdi belauniko,  
senarra eta biok,  
sei neska-mutiko,  
etxeko astoa ta  
kumea Periko,  
*senarra eta biok  
sei neska-mutiko,*  
Eulatetik joan ginen,  
baten bat betiko.



*Temerosos y llorando,  
caminábamos hacia Hernani  
donde vivía Joxe, hermano  
de Félix. Pasamos Tolosa  
y llegamos a Irura. Ese  
control no lo pudimos pasar.  
Y aunque por allá hubieran  
pasado cientos como nosotros  
tampoco lo hubiéramos  
pasado, porque uno de  
Eulate -maldito sea- nos  
reconoció y nos dio el alto.*

## [ 10 ]\*

Hernanira bidean,  
beldur eta malko,  
Felixen anai Joxe  
han bizi zalako.  
Tolosa pasa eta  
Irurara salto,  
kontrol hau ez genuen  
gainditu ahalko.  
Eulatear bat baitzen  
sugearen kalko,  
nahiz han pasako ziren  
ehun gu bezalako,  
*Eulatear baitzen  
sugearen kalko,  
ezagutu orduko  
eman digu alto.*



*Habríamos pasado, de no habernos reconocido. Pero el de Eulate se puso arrogante: “También nos llevamos al hijo mayor, Mauro”. Felix, se opuso como buen padre, que con diez y seis años era demasiado joven. Y se llevaron a Felix a prisión.*

## [ 11 ]\*

Ezagutu izana  
izan zen krudela,  
aurrerantza pasako  
baikinen bestela.  
Eulatearra harro  
ipini zen bela:  
seme zaharrena Mauro  
bazeramatela.  
Kontra hasi zen Felix  
aita on bezela:  
hamasei urterekin  
gazteegi zela.  
*Kontra hasi zen Felix  
aita on bezela...*  
orduan, berarentzat  
izan zen kartzela.



*Vuelta a Tolosa, al  
acuartelamiento, allí no  
había ni tribunal ni juicio.  
Pasaban las horas y crecía el  
miedo. Le sacaron, al fin, a  
punta de fusil, en la puerta  
esperábamos mis seis hijos  
y yo: se lo llevaron de malas  
maneras, a empujones, y  
mis hijos no volverían a ver  
nunca más a su padre.*

## [ 12 ]\*

Berriro Tolosara  
egin behar jauzi,  
akuartelamendura  
ez epai, ez auzi...  
Orduak pasa ziren,  
beldurra nagusi;  
noizbait atera zuten,  
ta fusilak luzi,  
ta ni atarian zain,  
sei ume ta guzi...  
Aurrean zeramaten,  
bultzaka, itsusi,  
ta ni atarian zain,  
sei ume ta guzi...  
gehiago aitarikan  
ez zuten ikusi.

## [ 13 ]

Aita ostu dieten  
ume haien traza!  
Senarrrik gabe segi  
nuen neure kasa...  
Andoain jo genuen,  
nahiz ez zen erraza,  
Txitibar baserria  
izan zen arnasa!  
Antioniok azaldu  
zigun anabasa:  
«-Hernani inguruan  
bada tiro jasal»  
*Antioniok azaldu  
zigun anabasa:*  
«-Gauzak baretu arte  
ez zaitezte pasa»

*¡Qué terrible es la suerte  
de los niños a quienes les  
roban a su padre! Tuve que  
retomar mi camino, sola  
ya, a mi suerte... Al fin  
llegamos a Andoain y el  
caserío Txitibar fue nuestro  
cobijo. Antonio nos dio  
cuenta del caos: “¿Andan  
a tiros por Hernani! No  
sigáis hasta que se calmen  
las cosas”.*

## [ 14 ]

*El terror se extendía a golpe de cadáveres, desaparecidos, golpes y plomo. Nosotros deseando llegar a Hernani, Antonio nos tranquilizaba con el cariño que sabe dar un padre viudo: “Dormid en el lagar y acomodaos”. Y nos acogió durante quince días.*

Hilotzez, desagertuz,  
kolpez ta berunez,  
horrelaxe zioan  
izua errunez...  
Gu Hernanirako zain,  
berriak entzunez,  
Antioniok lasaitzen  
gintuen zentzunez,  
aita alargun baten  
erruki legunez:  
«-Egin lo tolarean  
tokia degunez».  
*Aita alargun baten  
erruki legunez,*  
ostatu eman zigun  
hamabost egunez.

## [ 15 ]

Giroak hartu zuen  
baretu tankera.  
Berriro kargaturik  
burutik hankera,  
bagoaz Andoaindik  
Hernani partera,  
nekez iritsi ginen  
Plazako atera.  
Madina azaldu zen  
«kaixo» esatera...  
bi astoak lapurту  
zizkigun batera.  
*Madina azaldu zen*  
*«kaixo» esatera,*  
zer alkate klase zen  
kontuak atera.

*Cuando pareció que la  
situación se tranquilizaba,  
cargamos de nuevo con todo  
y partimos de Andoain  
hacia Hernani, bien que nos  
costó llegar hasta su plaza.  
Pero allí apareció Madina  
a darnos la “bienvenida”:  
sin más, nos robó los dos  
burros. Imaginaos qué clase  
de alcalde era.*



Tolosa 28 — 10 — 36

Querida i Martina me encuentro bien  
por faora. vosotros nose como estarian  
ya sabes que estoi estoi esperando de  
tus trabajos que el que esta aqui  
no puede hacer ninguna diligencia supo  
ngo que ya teabran contestado de  
Burgos si acaso no te an mandado nada  
bete a San Sebastian acasa de mi  
hermano Manuel aber si puede  
acer algo pormi señas de el Calle  
Euscalerria N° 9-3 derecha Sin mas  
tu esposo Felix Goya

Tolosa 28-10-36

“Querida Martina me encuentro bien por haora vosotros nose como estarian ya sabes que estoi estoi esperando de tus trabajos que el que esta aqui no puede acer ninguna diligencia supongo que ya teabran contestado de Burgos si acaso no te an mandado nada bete a San Sebastián acasa de mi hermano Manuel aber si puede acer algo pormi señas de el Calle Euscalerria N° 9-3 derecha Sin mas tu esposo Felix Goya”

1936/10/28an Tolosako kartzelatik Hernaniko Pipirita baserrira bidalitako posta-txartelaren transliterazioa  
Transliteración de la tarjeta postal enviada desde la cárcel de Tolosa al caserío Pipirita de Hernani 28/10/1936

San Sebastian 14-11-36 1)  
Querida Martina me han trasladado  
a San Sebastian ha si que ya sa  
bes la muda me tienes que traer  
haqui todabia no tienes prisa asta  
fin del mes todabia tengo una muda  
limpia y el dia que bienes y vas  
donde tu cuñada Catalina y elle  
te enseñara en donde esta la  
prision si esque te parece venir antes  
tuberas Sin mas tu esposo Felix Goya

*San Sebastian 14-11-36*

*“Querida Martina me han trasladado a San Sebastián ha si que ya sabes la muda que me tienes que traer aquí todavía no tienes prisa hasta fin del mes todavía tengo una muda limpia y el día que vengas y vayas donde tu cuñada Catalina y ella te enseñará en donde está la prisión si es que te parece venir antes tendrás Sin más tu esposo Félix Goya”*

1936/11/14an Ondarretako kartzelatik Hernaniko Pipirita baserrira bidalitako posta-txartelaren transliterazioa  
Transliteración de la tarjeta postal enviada desde la cárcel de Ondarreta al Caserío Pipirita de Hernani 14/11/1936

## [ 17 ]

Sarraila horren giltza  
Montanerrek zuen  
Iruñara jo nuen,  
hura zen gertuen.

Handik Burgoseraino,  
galdetuaz: «-Zuen  
semeak ea bihotz  
apurrik baduen...».

Handik Ondarretara,  
ahal nuen estuen,  
askatasun papera  
sinatua nuen!

*Handik Ondarretara,  
ahal nuen estuen...*

«-Felix ez dago hemen,  
askatu genuen».



*Montaner tenía una clave,  
para empezar: acudí a  
Iruña, donde él. Y luego  
a Burgos, implorando  
“Ablandad el corazón de  
vuestro hijo”. De allá a  
Ondarreta, a toda prisa,  
llevando conmigo el papel  
con su libertad: “Aquí no  
está, ya salió libre”.*

## [ 18 ]

*“¿Salió libre y no vino a casa?”. “Tal vez se escapó de noche”. Durante años me pregunté por qué me dijo tan tranquilamente “Está libre”, pero sus ojos delataban que su boca pronunciaba la noticia más negra: nunca volvería a tener junto a mí a mi amado.*

«Askatuta ez al da guregana joan?»  
«Ihes egin zezaken ilun abaroan...»  
Hoiek pasa nituen urtetan gogoan,  
«-Aske dago» zergatik esan zidan doan?...  
Baina antzeman nion gizon hari soan, berez notizi beltza zeukala ahoan.  
*Baina antzeman nion gizon hari soan,*  
maitea ez nuela izango ondoan.



## [ 19 ]

*Quien quiera que lo ordenó,  
lo hiciera un asesino o un  
bestia, sé bien que Felix no  
salió vivo. Y aunque el creer  
nos dé mucha fuerza, con  
el tiempo se deja de soñar.  
¡No sabemos ni dónde lo  
enterraron! ¡La impotencia  
me subleva! Como que,  
mucho después de haber  
muerto yo, siguen sin  
saberlo...*

Nornahi zen agintean,  
hiltzaile nahiz kirten,  
banekien ez zela  
bizirik irten.

Pentsatu arren zenbat  
indar lekarkiken,  
azkenerako ez da  
ametsik egiten.

Non lurperatu zuten  
zaila da jakiten!  
Ezinak jartzen ditu  
zainak irakiten...

*Non lurperatu zuten  
zaila da jakiten!*

Ni hil da gero ere  
apenas dakiten...

## [ 20 ]

Asko pentsatu gabe  
zer, nola ta zertan:  
Miguel Zaldundegin ta  
Mauro Urbanetan;  
Pedro, berriz, Larrabin,  
morrontza lanetan;  
utzirik Urnietan,  
nahiz Hernanin bertan,  
berriro, hor nijoa  
barruak penetan,  
etxea galzorian  
genuen benetan,  
*berriro, hor nijoa  
barruak penetan,*  
hiru txikienekin  
Eulatera bueltan.

*Sin pensármelo dos  
veces, déjé a Miguel en  
Zaldundegi, a Mauro en  
Urbaneta, a Pedro en  
Larrabi, todos como morroi  
(criados) en Urnieta y  
Hernani; y con los tres más  
pequeños volví, rota de pena,  
a Eulate, donde estábamos  
a punto de perder la casa.*

## [ 21 ]

*Se pusieron muy feas las cosas en Eulate, pero yo quería pelear por lo nuestro. Con ayuda de mi hermana y mi cuñado, y la de los Montaner, debí acudir a solucionar embargos, multas de todo tipo, represalias... hasta conseguir que no nos arrebataran nuestra casa.*

Eulateko berriek  
beldurra dakarte,  
baina borrokarako  
bazen mila tarte...  
Ahizpa ta koinatua  
ez ziren aparte;  
Montaner ta beraien  
laguntza bitarte,  
hamaika enbargutan  
izan nuen parte...  
hamaika isun mota,  
hamaika aldarte...  
*hamaika enbargutan  
izan nuen parte...*  
etxerik ez kentzea  
lortu nuen arte!

## [ 22 ]

Nolako egoera,  
halako eskola;  
hiru umeak hazi  
ezinda inola:  
Felixek izan zuen  
Lizarran eskola,  
Leonor gazte asko  
Iruñan zegola,  
ta Josefak neurekin  
zuen nork kontsola...  
Nahiz eta egoerak  
ozpindu odola,  
*ta Josefak neurekin  
zuen nork kontsola,*  
aurrera irten ginen  
neuk ez dakit nola...

*Haciendo frente a las  
adversidades, luché lo  
indecible por criar aquellos  
tres niños: a Félix le envié  
a aprender un oficio a  
Estella, Leonor marchó  
bien joven a Iruña y Josefa  
quedó conmigo. Y aunque  
se enseñaron con nosotros,  
conseguimos salir adelante,  
lo cierto es que no sé ni  
cómo.*

*Soy Martina Ruiz de  
Galarreta, nací en Iruña  
justo a las puertas del siglo  
XX ¡Ay, cómo he tenido  
que pelear por mi familia y  
cuánto he llorado en soledad  
por culpa de esa maldita  
guerra !Escuchad lo que os  
tengo que contar!*

## [ 23 ]\*

Hogeigarren mendea  
hastetikan berta,  
Iruñan sortu nintzen  
mundura zer gerta...

Ni nauzue Martina  
Ruiz de Galarreta,  
nire familiari  
iso ta arreka.

Izkutuan egin dut  
hainbat negar eta,  
gerra garaia ez da  
igaro barreka.

*Izkutuan egin dut  
hainbat negar eta,  
jakin nahi dituenak  
jar beza arreka.*



## Felix Goya Urbieta

1885/04/13 - 1936/11/15?

### DESAGERTUA

Gaur, 29.220 egun bete dira DESAGERRARAZI zutela.

1936ko irailean, Martina Ruiz de Galameta emaztearekin, 16, 13, 10 eta 7 urteko semeekin eta 4 urteko eta 10 hilabeteko alabekin Nafarroako Eularetik deseriratuak. Tolosa igarotzerakoan Gipuzkoari erasotzen ari ziren kolpistekin zihazten rokotoak abildotu zuten. Bi hilabete geroago, 1936-11-13an, Ondarotsako espetxera aldatu zuten, eta geratzik non dagoen berri sinesgaririk ez dago. Espetxe horretan, emazteari "aske" utzi zutela esan zioten, eta bere libean ohar hau agertzen da: "A disposición del juez especial Sr. Llamas". Aldatzeko agindua eman zuen Ramiro Llamas del Toro Komandantea Epalite Berezit izendatu zuten kolpistek Donostia sartu zirenean.

Desagerrarazi zutenetik 80 urte bete dira, eta oraindik ez dago ez **Administraziorik**, ez **Erakunde Publikorik**, ez **Gobernurik** familiar aurkitzen lagunduko dion inolako argibiderik eman diotik.

Honenbestez, inork **AURKO DEZAGUN** berririk eman balezake, telefono honetara **602610998** hots egin diezagula, edo mezu bat bidal dezala honako helbide honetara: **info.felix.goya.urbieta@gmail.com**

Donostia, 2016ko azararen 15a

## FELIX GOYA URBIETA

1885/04/13 - ¿1936/11/15?

### DESAPARECIDO

Hoy se cumplen 29.220 días desde su FORZADA DESAPARICION



Fue desterrado de Euzkadi (NA) en septiembre de 1936 con su esposa Martina Ruiz de Calarreta, 4 hijos de 16, 13, 10 y 7 años, una hija de 4 años y otra de 10 meses.

Detenido a su paso por Tolosa por requetés de las tropas golpistas que en esos fechas atacaban Gipuzkoa y trasladado dos meses después a la Cárcel de Ondarreta, el 13-11-1936, sin que a partir de esta fecha se tenga ninguna noticia fehaciente sobre su paradero. La información que le dieron a su esposa fue que le habían puesto "en libertad" y en su ficha de esta cárcel consta la siguiente nota "A disposición del juez especial Sr. Llamas".

La orden de su traslado fue realizada por el Comandante Ramiro Llamas del Toro, nombrado Juez Especial a la entrada de los golpistas en Donostia.

Cumplidos 80 años de su forzada desaparición ninguna Administración ni Ente Público, ni Gobierno ha proporcionado a su familia datos que permitan su efectiva localización.

Solicitamos a quien pueda facilitar alguna información para localizar su PARADERO, se ponga en contacto con nosotros llamando al teléfono 602610998 o bien enviando un mensaje a la dirección de correo [info.felix.goya.urbieta@gmail.com](mailto:info.felix.goya.urbieta@gmail.com)

Donostia 15-11-2016



# Martinarenak

---

**Bertsoen egilea:** Unai Agirre Goia

**Itzulpena:** Pello Zubiria Kamino

**Ilustrazioak:** Edorta Murua

---

**Historia osorik irakurtzeko:**

<https://docs.google.com/file/d/0BxLUrnLliAbMTh5emFUWF9MRXc/preview>



